

Bitarteko udaltzaintzako lan-poltsa

[EHAA: 2014ko otsailak 25](#)

AURREKARIAK: EUDEL-EUSKO JAURLARITZA TALDE TEKNIKOAK

- Udal askoren ohiko eskaera da, izan ere, udaltzainen behin behineko lanpostuak estali behar direnean arazoak izan ohi dituzte. Hainbat legegintzalditan, batzorde espezifiko ugaritan ukitu den gaia da eta legez ere araututa dago, hain zuzen, EAEko Poliziaren Legea Aldatzeko Legearen 2011ko Aurreproiektuan.

- **2013ko azaroa:** Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak gaiari berriro heldu zion, Udalei gutun bana bidalita, proposamen horretan zuten benetako interesa ezagutzeko. **20 Udaletan guztira**, xehetasunak falta diren arren, bitarteko udaltzainak edukitzeko proposamenean interesa erakutsi dute hasieratik.

- Udaletan, Segurtasun Zuzendaritzan eta Polizia zein Larrialdien Euskal Akademian erakutsitako interesa ikusita, udaltzainen poltsa bat antolatzeke lanak hasi dira. **Bi lan-talde** eratu dira:

1.- deialdirako oinarrien eredua idazteko

2.- poltsaren funtzionamenduari buruzko araudiaren eredua idazteko

Talde tekniko hauek abenduan-urtarrilean eta otsailean lan egin dute. Kideak: EUDEL, euskal udaletako ordezkari teknikoak eta Eusko Jaurlaritzaren teknikariak -Segurtasun Zuzendaritza eta Polizia eta Larrialdien Euskal Akademia-.

- Udaltzainen lan-poltsa eratzeko deialdia otsailaren 25eko EHAOn argitaratu zen. Prozesua burututakoan eta prestakuntzako ondorengo aldia egindakoan, poltsa formalki eratuta egongo da eta horri atxiki nahi dioten Udalek erabili ahal izango dute, hain zuzen ere, 2014ko ekainean.

DEIALDIAREN XEHETASUNAK

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak burutuko du bitarteko udaltzainen deialdi, hautaketa eta prestaketa.
- Hautaketarako Epaimahaian Udalen parte-hartzea nabarmena izango da.
- Ondoriozko poltsaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak burutuko du.
- Prozedura honetan Udalen parte-hartzea arautzeko erabiliko den tresna juridikoa **Lankidetza Hitzarmena** izango da. Hala egin nahi duten Udalek harekin bat egin ahal izango dute. Hitzarmena automatikoki luzatuko da, baina alderdietariko edozeinek edonoiz adierazi dezake bere amaiera.

- Interesatutako Udalek, Lankidetza Hitzarmenari atxiki eta gero, poltsako udaltzain bat eskatu ahal izango dute beharrian jakin bat behin behinekoz estaltzeko. Orain arte, guztira 10 Udalek adierazi dute idatziz deialdi honetan parte hartzeko interesa.
- Lanpostu bat behin behinekoz betetzeko bitarteko udaltzainen eskabideetan Udalek **hurrengo gaiak aipatu behar dituzte: jardunaldi-mota, aurreikusitako iraupena eta ordainsaria**. Gainera, lanpostu horrek hizkuntza-eskakizunik duen azaldu behar da. Poltsa osatzen duten udaltzainek BTP izeneko gidabaimen berezia edukitzea bermatuko da.
- Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun eta Udaltzaingoak Koordinatzeko Sailak erabilitako kronogramaren arabera, bitarteko udaltzainen poltsa eratzeari dagokionez, **datak hurrengoak izango dira gutxi gorabehera:**
 - 2014/02/24: EAEko Polizia Akademiaren Artezkaritza Kontseiluaren Deialdia, deialdia egingo dela jakinarazi eta onartzeko.
 - 2014/02/25: EHAA bitarteko udaltzainen lan-poltsa eratzeako deialdia iragarri eta oinarriak argitaratuko dira.
 - **2014/03/13: interesa dutenek izena emateko duten azken data. Izena emateko epearen itxiera: goizeko 11:00etan.** Izena emateko PLEA/AVPEren webgunean egingo da: www.arkauteakademia.net
 - Martxoak 29: proba teorikoak hasteko aurreikusitako data.
 - Maiatza: gainditu duten lehenengo 40 hautagaien izenak oinarritzeko prestakuntza-ikastaroa (aurreikusitako iraupena: 120 ordu).
 - Ekaina: zerrenda osatuta eta interesatuta Udalek erabiltzeko moduan egongo da.

Doako telefono-zenbakia jarri da: **900 840 088**. **Ordutegia:** astelehenetik ostegunera, 8:30etik 16:30era eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara. Bertan gaiari buruzko informazio osoa emango da.